



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2006KO MAIATZAREN 31)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2006ko maiatzaren 31



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kenduko.

1. Zein da **OKER** idatzia dagoena? “Ustez extralurtar jatorriko izaki batzuek bahitu zuten. Esperimentu genetikoak egin ostean, toki berean utzi zuten berriro”.

- a) extralurtar
- b) bahitu
- c) Esperimentu
- d) genetikoak

2. Honako hauetatik, zein da zuzen idatzia dagoena?

- a) Urteurren
- b) Urrengoa
- c) Hilurren
- d) Handihurren

3. Edozein aurkikuntza gizartean onartzeko prozesuak lasaia eta sakona izan behar du, _____ ernalkuntzaren onarpenarekin gertatu zen bezala.

- a) in vitro
- b) “In Vitro”
- c) In Vitro
- d) *in vitro*

4. Zein da zuzena?

- a) Gure ama 1931eko otsailaren 20an jaio zen.
- b) Gure ama 1931ko otsailak 20an jaio zen.
- c) Gure ama 1931ko otsailaren 20an jaio zen.
- d) Gure ama 1931ko otsailak 20ean jaio zen.

5. Honako esaldi honetan, zein da **OKER** idatzia dagoena?: “Internet sarean polemikarik handiena sortu duena CD-grabagarrien gainean SGAEk ezarri nahi duen canon-a izan da”.

- a) Internet sarean
- b) CD-grabagarrien
- c) SGAEk
- d) canon-a

6. Hona hemen atzamarren izenak. Zein dago zuzen idatzia?

- a) Herpuru
- b) Hatzerakusle
- c) Hatz-nagi
- d) Hatz luze



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

7. Administrazioak zerbitzuak prestatzen dituenean, zerbitzu horien kalitatea ez ezik, zerbitzuen _____
_____ ere kontuan hartu behar du, herritarrei modu egokian erantzuteko.
- zabalkortasuna
 - hedakortasuna
 - eskuragarritasuna
 - erabilbidetasuna
8. Gure etxeko egongelako altzariak konpondu nahi ditugu eta zenbait tresna hartu ditugu horretarako. Zein da tresna bikote **OKERRA**, hau da egongelako altzari bat konpontzeko balio EZ duena?
- Bihurkinak eta torlojuak
 - Konpontzeko pasta eta berniza
 - Erregela eta eskuaira
 - Tupina eta burruntzalia
9. Biharko hitzaldia prestatzen aritu naiz eta _____ erabiltzea pentsatu dut, nire azalpenak hobeki ikus eta uler ditzaten.
- bildukiak
 - gardenkiak
 - artekiak
 - adabakiak
10. Irakasle eskolan ikusi zintudan _____; zertan ari zinen han?
- beste egunean
 - aurreko batean
 - lehenean
 - egun batetan
11. Oztopo egin eta _____ erori zen atzo Marta.
- ahuspez
 - muturrarekin
 - atzekoz aurrera
 - buruz buru
12. Zein da zuzena euskara batuan?
- Ministerio
 - Ministergo
 - Ministeritza
 - Ministraritza
13. Zein da hitz-sorta hobestekoa *Hiztegi Batuaren* arabera?
- Krokodilo, orkestra, gimnasia, paragrafo.
 - Krokodilo, orkestra, gimnasia, parrafo.
 - Krokodilo, orkestra, gimnastika, paragrafo.
 - Kokodrilo, orkesta, gimnasia, parrafo.
14. Hitz-zerrenda hauetako zein dago ongi euskara batuan?
- Arkitekto, iritzi, aurrealde, gotzain, nire.
 - Arkitektu, eritzi, aurrekalde, gotzai, nire.
 - Arkitekto, iritzi, aurrekalde, gotzai, nire.
 - Arkitektu, eritzi, aurrealde, gotzain, nire.



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

15. Zein da euskara batuko ortografiarekin **BAT EZ DATORRENA**?

- a) Gutun honen bidez, kultur astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- b) Gutun honen bidez, kultur-astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- c) Gutun honen bidez, kultura astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.
- d) Gutun honen bidez, kultura-astea antolatzeko diru-laguntza eskatzen dizugu.

16. Aukera ezazu euskara batuan zuzena dena.

- a) Giza-eskubideak
- b) Giza eskubideak
- c) Gizaeskubideak
- d) Gizeskubideak

17. Lanbidea irakasteaz arduratzen den ikastetxeen izena adierazteko, zein **HOBETSIKO** zenuke honako aukera hauen artean?

- a) Lanbide-heziketa-ikastetxe
- b) Lanbide-heziketa ikastetxe
- c) Lanbide heziketa-ikastetxe
- d) Lanbide-heziketako ikastetxe

18. Zein da idazkera zuzena euskara batuan?

- a) Azpi-multzo
- b) Azpi multzo
- c) Azpimultzo
- d) Azpikomultzo

19. Ondorengo esaldi-amaiera hauetatik, zein da **OKERRA** euskaraz?

- a) ... eta lokartuta utzi zuen entzuleria.
- b) ... eta lokartuta utzi zuen entzulegoa.
- c) ... eta lokartuta utzi zituen entzuleak.
- d) ... eta lokartuta utzi zuen entzule-jendea.

20. “Adituei sinestera, arazo horrek luze joko du”. Hau da:

- a) Adituak direla eta, arazo horrek luze joko du.
- b) Adituen ondorioz, arazo horrek luze joko du.
- c) Adituek esandakoaren arabera, arazo horrek luze joko du.
- d) Adituak aditu, arazo horrek luze joko du.

21. Ez al duzu ate-hotsa entzun? Bai, _____ irten da.

- a) bateren bat
- b) edonor
- c) inor
- d) baten bat

22. Gaur ez dut egunkaririk erosi.

- a) Uzten didazu zurea pixka bat?
- b) Utziko bazenidake zurea pixka bat...
- c) Utziko didazu zurea pixka bat?
- d) Utziko diezadakezu zurea pixka bat?



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

23. _____ da gure txakurra ere.
- Zuenaren modukoa
 - Zuena bezala
 - Zuenaren bezalakoa
 - Zuena moduan
24. "*Nabari da* oporretan ibili dela". Zeinek **EZ DU** horren esanahi bera biltzen?
- Ezagun da oporretan ibili dela
 - Ezaguna da oporretan ibili dela
 - Agerian dago oporretan ibili dela
 - Seinale da oporretan ibili dela
25. _____ higuigarria _____ film hori, gero!
- Zelako / da
 - Zeinen / dela
 - Nolako / da
 - Zein / den
26. Praktikak _____ asko ikasten da.
- eginez
 - egiten
 - egiteagatik
 - egiteaz
27. Hala ere, beste bi urtez iraun _____ .
- zituen / alkatetzat
 - zuen / alkate
 - zuen / alkatetzat
 - zen / alkate
28. _____ da tematia eta egoskorra, _____ ez baitago berarekin hitz egiterik.
- Zein / non
 - Halakoa / nolakoa
 - Hain / non
 - Zenbat / nola
29. "Renault bana erosi dugu; hortaz, marka _____ autoak erosi ditugu."
- berdinetako
 - berdineko
 - antzeko
 - bereko
30. Aukera ezazu esaldi zuzena.
- Zenbat eta zorrotzago alderatu bi lege horiek, gero eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Hainbat eta zorrotzago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Zenbat eta zorrotzago alderatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Gero eta zorrotzago alderatu bi lege horiek, hainbat eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

31. “Talde horretakoak dotore askoak dira.” Zer esan nahi du?
- Talde horretako asko dotoreak dira.
 - Talde horretakoak asko dira, eta denak dotoreak.
 - Talde horretakoak oso dotoreak dira.
 - Talde horretakoak dotoreegiak dira.
32. Aukera ezazu **OKER** dagoen esaldia.
- Gabriel Langarika, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Hezkuntza batzordeburu Gabriel Langarikak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Gabriel Langarika Hezkuntza batzordeburuak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
 - Gabriel Langarikak, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
33. _____ Axular zen ezagunena.
- Idazle klasikotan
 - Idazle klasikoengan
 - Idazle klasikorengan
 - Idazle klasikoetan
34. Ni ez beste guztiak joan ziren hitzaldira.
- Ni izan ezik, denok ere joan ziren hitzaldira
 - Ni ez ezik, denok joan ziren hitzaldira.
 - Denak joan ziren hitzaldira, ni izan ezik.
 - Denak joan ziren hitzaldira, ni baizik.
35. Zein da zuzena euskara batuko araudiaren arabera?
- Merezi du liburu batzuk irakurtzea.
 - Merezi du liburu batzuek irakurtzea.
 - Merezi du liburu batzuk irakurtzeak.
 - Merezi du liburu batzuek irakurtzeak.
36. Zein da zuzena euskara batuan?
- Ibaiaren behekaldean arrai asko hilik agertu dira.
 - Etxea erosi asmoz ari naiz dirua aurrezten.
 - Alpesetara joango gara oportetarako.
 - Kartel apain-apaina jarri dute denda atariaren goialdean.
37. Zein da, euskara batuko araudiaren arabera zuzena dena?
- Idazkaria naizen aldetik, hauxe jakin arazten dizut:...
 - Idazkaria naizen aldetik, hauxe jakinarazten dizut:...
 - Idazkaria naizen aldetik, hauxe jakin erazten dizut:...
 - Idazkaria naizen aldetik, hauxe jakinerazten dizut:...



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

38. Zein da, euskara batuko araudiaren arabera **OKERRA** dena?
- Lau urtez behin elkartzen dira senitartekoak.
 - Lau urtetarik behin elkartzen dira senitartekoak.
 - Lau urtetik lau urtera elkartzen dira senitartekoak.
 - Lau urtero elkartzen dira senitartekoak.
39. Ondorengo esaldietan, aukera ezazu zuzena.
- Ekonomia gaizki doalako berriak ez gintuzke harritu behar.
 - Ekonomia gaizki doalaren berriak ez gintuzke harritu behar.
 - Ekonomia gaizki doanaren berriak ez gintuzke harritu behar.
 - Ekonomia gaizki doalakoaren berriak ez gintuzke harritu behar.
40. “_____ ibili da Santaeskean”. Zein da zuzena euskara batuan?
- Etxez-etxe
 - Etixerik etxe
 - Etixerik-etxe
 - Etxekoz etxe
41. Zein da euskara batuan zuzen idatzita dagoena?
- Larogeita hemeretzi mila.
 - Hirurehun eta hemezortzi.
 - Hamar mila bostehun.
 - Zazpirehun eta hiru.
42. Zein da egokiena euskaraz inprimaki edo formulario batean?
- Izena eta deitura
 - Izen deiturak
 - Izen-deiturak
 - Izena eta deiturak
43. "Nik badakit; uzten badut, ez dut amaituko", esan zidan.
- Uzten bazuela bazekiela ez zuela amaituko esan zidan.
 - Esan zidan uzten bazuen bazekiela ez zuela amaituko.
 - Esan zidan uzten bazuen ez zuela amaituko, bazekien.
 - Uzten bazuen bazekiela ez zuenik amaituko esan zidan.
44. Salto egin zuen uretara _____
- galtzerdiekin eta guzti.
 - galtzerdi eta guzti.
 - galtzerdiak eta guzti.
 - galtzerdiz eta guzti.
45. Gainerakoei begira egon gabe _____
- norbera zaintzea hobe.
 - bakoitzak norbera zaintzea hobe.
 - nork bere burua zaintzea hobe.
 - norbera bere burua zaintzea hobe.



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

46. Zein esaldi dago **OKER**?

Administrazioak, _____, ingumenaren aldeko politika ausartagoak egiteko konpromisoa hartu du datozen urteetarako.

- a) bere eskuko eskumena baliatuz
- b) bere eskuko eskumena erabiliz
- c) bere eskuko eskumenaz baliatuz
- d) bere eskuko eskumenaz erabiliz

47. Aukera ezazu esaldi **OKERRA**.

a) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urtetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.

b) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek hamar urtean egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.

c) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamarkadan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.

d) Kanpo merkataritzari dagokionez, euskal enpresek azken hamar urteetan egin duten aurrerakada ikaragarria izan da.

48. Bilera hura _____ izan zen.

- a) 1991n
- b) 1991an
- c) 1991ean
- d) 1991.an

49. Honako hauek dira piezaren ezaugarriak: _____, 3 cm zabal eta 7 m luze.

- a) 2,3 K
- b) 2,3 kg
- c) 2,3 Kg
- d) 2,3 Kg.

50. Zein dago zuzen idatzia?

- a) ARRATIBEL, Joxe: *Kontu zaarrak*, Editorial LGEV, Bilbo, 1980.
- b) ARRATIBEL, Joxe: *Kontu zaarrak*, Editorial LGEV, BILBO, 1980.
- c) ARRATIBEL, Joxe: “*Kontu zaarrak*”, Editorial LGEV, Bilbo, 1980.
- d) ARRATIBEL, Joxe: “*Kontu zaarrak*”, Editorial LGEV, BILBO, 1980.

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2006KO MAIATZAREN 31)****ERANTZUN-ORRIA**

| | | | | |
|----|----|----|----|----|
| 1 | 11 | 21 | 31 | 41 |
| 2 | 12 | 22 | 32 | 42 |
| 3 | 13 | 23 | 33 | 43 |
| 4 | 14 | 24 | 34 | 44 |
| 5 | 15 | 25 | 35 | 45 |
| 6 | 16 | 26 | 36 | 46 |
| 7 | 17 | 27 | 37 | 47 |
| 8 | 18 | 28 | 38 | 48 |
| 9 | 19 | 29 | 39 | 49 |
| 10 | 20 | 30 | 40 | 50 |



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Honako testu honi buruzko 10 galdera duzu testuaren amaieran. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

Abeltzaintza ekologikoa, inguruarekin bat

2006/02/01 | Galarraga Aiestaran, Ana |

Euskal Herrian, abeltzaintza ekologikoa ez da nekazaritza ekologikoa bezain ezaguna. Dena dela, gero eta baserritar gehiagok aukeratzen dute abeltzaintza-mota hori; izan ere, abantaila nabariak ditu. Baina oztopoak ere baditu, merkaturatzean batez ere. Oztopo horiek gainditzeko erronkari aurre eginez, pauso txikiz baina seguruz, abeltzaintza ekologikoa bidea egiten ari da.

Abeltzaintza ekologikoa ingurunearekin bat egiten duen ekoizpen-eredu bat da. Eredu hori tokian tokiko ingurura moldatzen da, eta, beraz, ez ditu ezaugarri berak leku batean eta bestean. Baina beti oinarritzen da abereek lurraekin duten harremanean eta elkarrekintzan.



(Argazkia: A. Galarraga)

Abereek lurretik hartzen dute janaria, eta, aldi berean, lurra ongarritzen eta aberasten dute gorotzen bidez.

Lurraren emankortasuna bermatzea da helburua, eta baita biodibertsitatea zaintzea ere.

Abeltzainek, lurrari ez ezik, urari ere erreparatzen diote. Hain zuzen ere, abeltzaintza intentsiboaren arazoetako bat hondakin-uren arazketa da. Euskal Herrian, lur-motagatik eta euri asko egiten duelako, erraza da gorotzek lur azpiko urak poluitzea. Hori saihesteko, abeltzaintza ekologikoan ondo zehaztuta dago zenbat buru har ditzakeen eremu batek.

Hala, hektarea bakoitzeko gehienez ere bi abelburu edo dozena bat ardi egon daitezke. Horrekin bermatu nahi da animaliek nahiko janari izatea, eta, gainera, ura ez kutsatzea. Abereen gorozkiez gain, ongarririk kimikoek ere poluitzen dute ura, baina abeltzaintza ekologikoan ezin da ongarririk kimikorik erabili.

Abereen ongizatea, funtsezkoa

Abeltzaintza ekologikoaren oinarritzeko beste alderdi bat abereen ongizatea da. Horrek esan nahi du animaliak behar fisiologikoak aseta izan behar dituela. Batetik, abere bakoitzak nahiko leku izan behar du, bestela estresa sortzen baita. Bestetik, garrantzitsua da espezie bakoitzaren izaera errespetatzea eta berezko jokabidea izateko aukera ematea. Alegia, animalia bakartia bada, bakarrik ibiltzeko aukera izan behar du, eta taldean bizitzeko, berriz, taldekoa bada.

Horretaz gain, abereak behar fisiologikoen arabera elikatuta egon behar du; bazkako animalia bada, bazka jan behar du, eta, graniboroa bada, alea. Eta, noski, ez du haragirik jan behar ez bada karniboroa. Bestelakoan, janariak ez du gai kimikoren arrastorik izan behar, eta, ahal izanez gero, abeltzainak bere lurretan ekoitzi behar du, hartara itxi egiten baita zikloa. Bazka edo alea erosi behar badu, nekazaritza ekologikoa izan behar du.

Osasuna giltzarri

Gai kimikoen arrastorik gabeko produktuak lortzea denez helburua, abeltzaintza ekologikoko abereek ez dute hartzen ez hormonarik, ez hazkundearen eta apetituaren estimulazailerik, ezta botikaririk ere. Txertoak, berriz, bakarrik eman daitezke izurri-arriskua badago eta gobernuak hori agindu badu.

Abereak gaixotzen badira, botiken ordeztu bestelako terapiak erabiltzen dira: homeopatia, aromaterapia eta fitoterapia. Sara Lorda da Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren elkarteko abere-ekoizpenaren arduraduna, eta albatari homeopatikoa da. Haren esanean, eredu



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

horretan hazitako animaliak gutxitan gaixotzen dira, osasun ona izateko baldintza guztiak baitituzte. Hala ere, gaixotuz gero eta animalia berrak arriskuan badago, botiken bidezko tratamendua egin daiteke, urtean bitan.

Bestela, homeopatiak eta terapia naturalek emaitza onak ematen dituzte. Esaterako, animaliak berak berez erabiltzen du fitoterapia. Senak aginduta, mesede egiten dion landarea hartzen du, eta sendatu egiten da, al baitariaren esku-hartzerik gabe.

Bestalde, abeltzaintza ekologikoan bertako arrazak hazten dituzte; izan ere, arraza horiek egokituta daude ingurura, eta besteek baino osasun-arazo gutxiago izaten dituzte. Gainera, aberearen fisiologia errespetatzen saiatzen dira abeltzainak; esaterako, berez titia uzten duten garaira arte uzten zaie txekorrei eta arkumeei amaren esnea hartzen, ez da onartzen metodo ez-



Abeltzaintza ekologikoan beste alderdi batzuk ere zaintzen dira, adibidez, energia-kontsumoa.
(Argazkia: A. Galarraga)

naturalen bidezko araldien sinkronizazioa, ezta enbrioien transferentzia edo eraldaketa genetiko ere.

Albaitariaren arazo handiena bizkarroiak dira, batez ere ardietan eta ahuntzetan. Gibelari eragiten dioten bizkarroiak ohikoak dira, gibel-fasziola esaterako, eta ahuntzei izugarri eragiten die nematodo batek, estrongiloak.

Sara Lordak dioenez, bizkarroiak saihesteko, sailak txandatzea komeni da, bizkarroiaren zikloa mozteko. Horretaz gain, hobe da abereek ez bazkatzea goizean goiz, orduan ateratzen baitira azalera bizkarroiak. Eguzkiak indarra hartu ahala, bizkarroiak lurperatu egiten dira, eta orduan zailagoa da aberea infektatzea. Baina abereak ahal den denbora gehien egoten direnez kanpoan, ez da erraza goizean ez bazkatzea.

Merkaturatzeko zailtasunak

Neurri horiek guztiak hartuta, abeltzaintza ekologikoan lortzen diren produktuak kalitate gorenekoak dira. Ekoizpen-eredu hori aukeratzen duten abeltzainak pozik egoten dira emaitzekin, eta erabat gogobetetzen ditu abereak ondo hazten direla ikusteak. Baina dena ez da hain ona. Izan ere, arazo handiak izaten dituzte beren produktuak merkaturatzean.

Zaila da kontsumitzaileengana iristea, eta are zailagoa labelarekin lehiatzea eta jendeari garbi uztea zer alde dagoen bataren eta bestearen artean. Gainera, ez zaie ondo iruditzen label-ekoizpenak hainbeste diru-laguntza publiko jasotzea eta berek hain gutxi, kontuan izanda kalitate handiko produktuak ekoizten dituztela.

Hortaz, abeltzaintza ekologikoan dabilzanek erakundeen aldetik laguntza handiagoa izatea eskatzen dute, bai merkaturatzeko, bai produktuak bereizi eta ezagutarazteko, eta, batez ere, ikerketak egiteko. Hain zuzen ere, garrantzitsua iruditzen zaie ikerketak egitea, produktuak hobetzeko eta ezaugarri bereziak dituztela frogatzeko.



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

1. Zein da abeltzaintza ekologikoaren oinarria?

- a) Nekazarien eta lurraren oreka gordetzea.
- b) Lurraren eta abereen arteko oreka eta harremana gordetzea.
- c) Baratzeko ekoizpenen eta naturaren arteko harremana egokia izatea.
- d) Abereen eta nekazarien arteko harremana ongi moldatzea.

2. Abeltzaintza ekologikoan, hektarea bakoitzeko gehienez ere bi abelburu edo dozena bat ardi egon daitezke. Zein da muga horren helburua?

- a) Abereak eroso sentitzea eta ongarri kimikorik ez erabiltzea.
- b) Animaliek bizirik irauteko beste janari izatea.
- c) Abereak hobeto zaintzea eta ongarri kimikorik ez erabiltzea.
- d) Animaliek bazka nahikoa izatea eta gai kutsagarriak lurretik ez iragaztea.

3. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?

- a) Abeltzaintza ekologikoan, garrantzi handikoa da abereak eroso sentitzea eta behar fisiologikoak aseta edukitzea.
- b) Animaliek leku estu edo urria badute, estresatu egiten dira.
- c) Abeltzaintza ekologikoan, animalia bakoitzaren izaera eta joerak errespetatu behar dira.
- d) Abeltzaintza ekologikoan, animalien ongizatearen garrantziaz jabetu dira.

4. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?

- a) Abeltzaintza ekologikoan, espezie bakoitzaren behar fisiologikoak hartu behar dira kontuan animaliei elikadura egokia emateko.
- b) Animaliei bazka eman behar zaie, eta, ahal bada, ekologikoa.
- c) Abeltzaintza ekologikoan, ahal dela, abeltzainak bere lurretan ekoitzi behar du animalientzako janaria.
- d) Abeltzaintza ekologikoan, gai kimikorik gabeko janaria eman behar zaie animaliei.

5. Testuak dioenaren arabera, abeltzaintza ekologikoan, ...

- a) ... hormonak neurritz bakarrik eman dakizkieke aberei.
- b) ... erruz eta mugarik gabe erabili ohi dira botikak abereak sendatzeko.
- c) ... neurritz erabiltzen dira estimulatuzaileak abereak azkarrago hazteko.
- d) ... egoera larri jakin eta arautu batzuetan baizik ezin dira erabili txertoak.

6. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein da GEZURRA?

- a) Abeltzaintza ekologikoan botikak erabiltzea zilegi da, baina kasu eta egoera jakin batzuetan bakarrik.
- b) Abeltzaintza ekologikoan, homeopatia eta bestelako terapia alternatiboak erabiltzen dira botiken ordean.
- c) Abeltzaintza ekologikoan, ohi baino sarriago gaixotzen dira abereak, ez baitago botikak erabiltzerik.
- d) Abeltzaintza ekologikoan, homeopatia bidezko tratamenduak erabiltzen dituzte.

7. Zer egiten dute, besteak beste, abeltzain ekologikoek?

- a) Berezko araldiak errespetatu.
- b) Arkumeei lehenbailehen uztarazten zaie amaren titia.
- c) Hango edo hemengo arrazarik egokienak hautatzen dira abeltzaintzarako.
- d) Eraldaketa genetikoa erabiltzen da abereak hobetzeko.



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

8. Bizkarroiak dira, abeltzaintza ekologikoan, albaitarien arazo handiena. Gai horri gagozkiola, zein da adierazpen hauetatik egia?

- a) Ardietan eta ahuntzetan bakarrik izaten da arazoa; beraz, behiak hazten dituztenek ez dute arazo hori izaten.
- b) Gibelari eragiten diote maiz bizkarroiek, baina badira arazo hori saihesteko modu eraginkorrak.
- c) Arazoa saihesteko, gauean bazkatzen dute baserri batzuetako abere batzuek, orduan ez baita bizkarroirik izaten belarretan.
- d) Sara Lorda abeltzainak belar-sailez txandakatzen ditu bere abereak, horrekin bizkarroien arazoa saihestu nahian.

9. Abeltzaintza ekologikoko ekoizleek arazo handiak izaten omen dituzte beren produktuak merkaturatzean eta saltzean. Zergatik?

- a) Izan ere, kontsumitzaileengana iristen badira ere, oso garestiak dira beren produktuak.
- b) Labela duten produktuak baino kalitate baxuagokoak baitira abeltzaintza ekologikokoak.
- c) Oztopo handia da, izan ere, labelari aurre egitea, eta nekeza gertatzen zaie abeltzain ekologikoei bi ekoizpen-moduen arteko desberdintasunen berri ematea.
- d) Erakunde publikoek ez baitute produktu-banatzailerik jartzen abeltzain ekologikoen eskura.

10. Testuak dioenaren arabera, ...

- a) Labela duten produktuetan ikerketak egiten dira, eta are gehiago abeltzaintza ekologikoko produktuetan.
- b) Labela duten produktuen eta abeltzaintza ekologikoko produktuen artean ez dago alde handirik, kalitateari dagokionez.
- c) Erakunde publikoek ez diote abeltzaintza ekologikoari diru-laguntza gehiago ematen, azken hauek ez dutelako behar adina ikerketa egiten produktuak hobetzeko.
- d) Erakunde publikoetatik diru asko jasotzen omen dute labeleko produktuek, abeltzaintza ekologikokoek jasotzen dutenarekin konparatuta.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUNAK

| | | | | |
|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaitako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulu faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazara dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

| ARLOA | GAIAK | |
|-------------------------------|--|---|
| Arkitektura | Le Corbusier. | Etorkizuneko etxebizitzak nolakoa izan beharko luke? |
| Artea | Arte kontzeptuaren bilakaera. | Zinemagintza arte gisa. |
| Biologia | Mendelen legeak. | Fotosintesia. |
| Ekonomia | Eskaria eta eskaintza. | Enpresa motak ekonomia kapitalistan. |
| Filologia | Hizkuntza familia nagusiak eta tipologia linguistikoa. | Elebitasuna eta eleaniztasuna. |
| Filosofia | Zientzia eta zientziaren fisisofia. | Filosofia moral eta politikoa. |
| Fisika | Energiaren kontserbazioa. | Hidrostatika: Arkimedesen printzipioa. |
| Geografia eta Historia | Erreforma protestantea. | Jaiotzak, hilkortasuna eta migrazioak. |
| Geologia | Moldapen karstikoa. | Tolesak. |
| Gizarte zientziak | Alderdi politikoak. | Gizarte- eta kultura-aldaketak. |
| Heziketa fisikoa | Osasuna eta jarduera fisikoa. | Kirola eta bortizkeria. |
| Informatika | Hizkuntza naturala, sistema adituak, errobotika... | Adimen artifiziala. |
| Informazioa | Euskarazko hedabideen eragina Euskal Herrian. | Telebistaren garrantzi soziala. |
| Kimika | Egitura atomikoa. | Taula periodikoa. |
| Matematika | Estatistika. | Zenbaki errealak. |
| Osasuna | Mikrobioen aurkako terapeutika. | Medikuntza "ofiziala" eta "naturala": zer du bakoitzak on eta txar? |
| Pedagogia | Gorputz adierazpena eta komunikazioa. | Hezkuntzaren erreforma eta eskola. |
| Psikologia | Terapia psikoanalitikoaren ezaugarriak. | Zer dugu Piaget-en alde eta zer kontra? |
| Teknologia | Energia iturri solidoak. Noiz arte? | Energia berriztagarriak. |
| Zuzenbidea | Familia. | Tributuak: kontzeptua eta motak. |



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2006KO MAIATZAREN 31)**

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2006KO MAIATZAREN 31)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2006KO MAIATZAREN 31)**



EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2006KO MAIATZAREN 31)

EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA

EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA:

AZTERKETARIA: NAN:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

| | | |
|-----------|--------------|---------|
| Zuzenak: | Okerrak: | Zuriak: |
| GAI (□32) | EZ GAI (<32) | |

Irakurmena

| | | |
|----------|-------------|---------|
| Zuzenak: | Okerrak: | Zuriak: |
| GAI (□6) | EZ GAI (<6) | |

Idazlana

| | |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

Ahozko azterketa

| | |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea